

# **Udal zergen karga-tasak, 2017ko ekitaldia. Behin betiko onespena**

2016ko urriaren 20an Osoko Bilkurak egindako bileran, 2017. ekitaldirako udal zergen karga-tasak hasiera batez onestea erabaki zen.

Karga-tasa horiek jendaurrean egon dira 30 egunez eta ez da erreklamaziorik egon.

Ondorioz, udal zergen karga-tasak behin betiko onartutzat jotzen dira.

Beran, 2016ko abenduaren 20an.–Alkatea, Josu Iratzoki Agirre.

## **ERANSKINA**

2017. urteko udal zergen karga-tasak

- 1) Lur-ondasunen gaineko kontribuzioari %0,28ko karga-tasa ezartzea, aurtengo berdina.
- 2) Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga: gehikuntza errealaren zenbatekoa finkatzeko, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikularen laukian agertzen diren urteko ehuneko gutxienekoak aplikatzea. Karga-tasa %18 izanen da.
- 3) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari %5eko karga-tasa ezartzea.
- 4) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,3 gutxieneko indizea aplikatzea, aurtengo indize berdina.